

## LEY PACCIONADA DE 16 DE AGOSTO DE 1841, POR LA QUE SE APRUEBA LA MODIFICACIÓN DE LOS FUEROS DE NAVARRA

Doña Isabel II, por la gracia de Dios y por la Constitución de la Monarquía española, Reina de las Españas, y en su Real nombre D. Baldomero Espartero, Duque de la Victoria y de Morella, Regente del Reino; a todos los que la presente vieren y entendieren, sabed: que las Cortes han decretado y Nos sancionado lo siguiente:

**Artículo 1.º** El mando puramente militar estará en Navarra, como en las demás provincias de la Monarquía, a cargo de una Autoridad superior nombrada por el Gobierno, y con las mismas atribuciones de los Comandantes generales de las demás provincias, sin que pueda nunca tomar el título de Virrey ni las atribuciones que éstos han ejercido.

**Art. 2.º** La Administración de justicia seguirá en Navarra con arreglo a su legislación especial, en los mismos términos que en la actualidad, hasta que, teniéndose en consideración las diversas leyes privativas de todas las provincias del Reino, se formen los códigos generales que deban regir en la Monarquía.

**Art. 3.º** La parte orgánica y de procedimiento será en todo conforme con lo establecido o que se establezca para los demás tribunales de la Nación, sujetándose a las variaciones que el Gobierno estime convenientes en lo sucesivo. Pero siempre deberá conservarse la Audiencia en la capital de la provincia.

**Art. 4.º** El Tribunal Supremo de Justicia tendrá sobre los tribunales de Navarra, y en los asuntos que en éstos se ventilen, las mismas atribuciones y jurisdicción que ejerce sobre los demás del Reino, según las leyes vigentes o que en adelante se establezcan.

**Art. 5.º** Los Ayuntamientos se elegirán y organizarán por las reglas generales que rigen o se adopten en lo sucesivo para toda la Nación.

**Art. 6.º** Las atribuciones de los Ayuntamientos, relativas a la administración económica interior de los fondos, derechos y propiedades de los pueblos, se ejercerán bajo la dependencia de la Diputación provincial, con arreglo a su legislación especial.

**Art. 7.º** En todas las demás atribuciones los Ayuntamientos estarán sujetos a la ley general.

**Art. 8.º** Habrá una Diputación provincial, que se compondrá de siete individuos nombrados por las cinco merindades, esto es, uno por cada una de las tres de menor población, y dos por las de Pamplona y Estella, que la tienen mayor, pudiendo hacerse en esto la variación consiguiente si se alterasen los partidos judiciales de la provincia.

**Art. 9.º** La elección de Vocales de la Diputación deberá verificarse por las reglas generales, conforme a las leyes vigentes o que se adopten para las demás provincias, sin retribución ni asignación alguna por el ejercicio de sus cargos.

**Art. 10.** La Diputación provincial, en cuanto a la administración de productos de los Propios, rentas,

## 1841EKO ABUZTUAREN 16KO LEGE HITZARTUA, ZEINAREN BIDEZ NAFARROAKO FORUEN ERALDAKETA ONARTZEN BAIT DA

Isabel II. Andrea, Jainkoaren eta Espainiako Konstituzioaren Graziak, Espainietako Erreginak eta bere Erreginaren izenean Baldomero Espartero Jauna, Victoria y de Morellako Dukea, Erreinuko Erregenteak; hau ikus eta uler dezaten guztiok, jakin ezazue: ezen Gorteen dekretatu eta Guk sendetsi dugula hurrengo hau:

1. Artikulua. Aginte militar soila Nafarroan, Monarkiaren gainerako probintzietan bezala, Gobernuak izendatutako Agintari gorenaren eskuetan egongo da eta gainerako probintzietako Komandante nagusien eskurantzak berberak edukirik, ezin hartuko dituelarik Erregeorde titulua ez eta haiek erabilitako eskurantzak ere.

2. Art. Justiziaren Administrazioak Nafarroan bere legeria bereziaren arabera segituko du, gaurreguneko era berean, arik eta Erreinuko probintzia guztien lege gabetzaile desberdinak aintzakotzat harturik, Monarkian eraendu beharreko arategi orokorrak osatu arte.

3. Art. Alderdi organikoan eta prozedurazkoan Nazioko gainerako auzitegiatarako ezarritakoa edo ezartzen denarekin adostasun osoan egongo da, aurrerantzean Gobernuari egoki lekizkiokeen aldaketei atxikiz. Baina Entzutegiak, beti ere, probintziako hiriburuan iraungo du.

4. Art. Justizia Auzitegi Gorenak Nafarroako auzitegietan eta berauetan garbitzen diren arazoetan, Erreinuko gainerakoetan erabiltzen dituen eskurantza eta eskumen berberak izango ditu, indarrean dauden edo aurrerantzean ezartzen diren legeen arabera.

5. Art. Udalak, hautatu eta antolatuko dira, indarrean dauden edo aurrerantzean Nazio osorako ezartzen diren arau orokorre jarraikiz.

6. Art. Udalen eskurantzak, fondoek barne ekonomia administrazioari eta herrien eskubide eta jabetzei dagozkienak, probintziako Diputazioaren menpekotasunean erabiliko dira, horren legeria bereziaren arabera.

7. Art. Bestelako eskurantza guztietan Udalak lege orokorrari atxikiturik egongo dira.

8. Art. Bost merinaldeek izendatuko dituzten zazpi lagunek osatutako probintziako Diputazio bat egongo da, hau da, populazio txikieneko hiruetariko bakoitzeko bana eta bina handiena duten Iruñea eta Lizarrakoek, honetan dagokion aldaketa egin daitekeelarik baldin eta probintziako partidu judicialak aldatuko balira.

9. Art. Diputazioko Batzarkideen hautaketa arau orokorre egiaztatuko dute, indarrean dauden edo gainerako probintzietarako ezartzen diren legeen arabera, inolako ordainketa eta soldatarik gabe beren karguetan iharduteagatik.

10. Art. Probintziako Diputazioak, Propio, errenta, auzoefektu, ariel eta herrien eta probintziaren

efectos vecinales, arbitrios y propiedades de los pueblos y de la provincia, tendrá las mismas facultades que ejercían el Consejo de Navarra y la Diputación del Reino, y además las que, siendo compatibles con éstas, tengan o tuvieren las otras Diputaciones provinciales de la Monarquía.

**Art. 11.** La Diputación provincial de Navarra será presidida por la Autoridad superior política nombrada por el Gobierno.

**Art. 12.** La Vicepresidencia corresponderá al Vocal decano.

**Art. 13.** Habrá en Navarra una Autoridad superior política nombrada por el Gobierno, cuyas atribuciones serán las mismas que las de los Jefes políticos de las demás provincias, salvo las modificaciones expresadas en los artículos anteriores, y sin que pueda reunir mando alguno militar.

**Art. 14.** No se hará novedad alguna en el goce y disfrute de montes y pastos de Andía, Urbasa, Bardenas ni otros comunes, con arreglo a lo establecido en las leyes de Navarra y privilegios de los pueblos.

**Art. 15.** Siendo obligación de todos los españoles defender la Patria con las armas en la mano cuando fueren llamados por la Ley, Navarra, como todas las provincias del Reino, está obligada, en los casos de quintas o reemplazos ordinarios o extraordinarios del Ejército, a presentar el cupo de hombres que le corresponda, quedando al arbitrio de su Diputación los medios de llenar este servicio.

**Art. 16.** Permanecerán las aduanas en la frontera de los Pirineos, sujetándose a los aranceles generales que rijan en las demás aduanas de la Monarquía, bajo las condiciones siguientes:

1.<sup>a</sup> Que de la contribución directa se separe a disposición de la Diputación provincial, o en su defecto de los productos de las aduanas, la cantidad necesaria para el pago de réditos de su deuda y demás atenciones que tenían consignadas sobre sus tablas, y un tanto por ciento anual para la amortización de capitales de dicha deuda, cuya cantidad será la que produjeron dichas tablas en el año común del de 1829 al 1833, ambos inclusive.

2.<sup>a</sup> Sin perjuicio de lo que se resuelva acerca de la traslación de las aduanas a las costas y fronteras de las provincias Vascongadas, los puertos de San Sebastián y Pasajes continuarán habilitados, como ya lo están provisionalmente, para la exportación de los productos nacionales e importación de los extranjeros, con sujeción a los aranceles que rijan.

3.<sup>a</sup> Que los contrarregistros se han de colocar a cuatro o cinco leguas de la frontera, dejando absolutamente libre el comercio interior, sin necesidad de guías ni de practicar ningún registro en otra parte después de pasados aquellos, si esto fuere conforme con el sistema general de Aduanas.

**Art. 17.** La venta de tabaco en Navarra se administrará por cuenta del Gobierno, como en las demás provincias del Reino, abonando a su Diputación, o en su defecto reteniendo ésta de la

salgaien administrazioari dagokionean, Nafarroako Kontseiluak eta Erreinuko Diputazioak erabiltzen zituzten ahalmen berberak izango ditu, eta gainera, berauekin bateragarriak izanik ere Monarkiaren bestelako probintziako Diputazioek dauzkaten edo edukiko lituzketenak.

11. Art. Nafarroako probintziako Diputazioa Gobernuak izendatutako Agintari politikoko gorenak presidituko du.

12. Art. Lehendakariordetza Batzarkide dekanolari dagokio.

13. Art. Nafarroan Gobernuak izendatutako Agintari politikoko gorenaren egongo da, gainerako probintzietako Buruzagi politikoen eskurantz berberak edukirik, aurreko artikuluetan adierazitako aldaketak salbortzeko eta inongo agente militarrik eduki gabe.

14. Art. Andia, Urbasa, Bardeak eta bestelako amankomunetako mendi eta larreak baliarazi eta gozatzeko ez da inolako berrikuntzarik egingo, Nafarroako legeetan eta herrien abantailatan erabakitakoaren arabera.

15. Art. Espainiar guztien betebeharra legeak deitzen dituen armak eskuetan Aberria defenditzea izanik, Nafarroa, Erreinuko probintziak oro bezala, beharturik dago Armadarako kinta edota ohizko edo aparteko soldadutza deialdietarako, dagokion gizon kopurua aurkeztera, zerbitzu hori betetzeko bideak Diputazioaren nahierara geratzen delarik.

16. Art. Aduanek Pirineotako mugan iraungo dute, Monarkiaren gainerako aduanetan diharduten arantzel orokorrean lotuz, honako baldintza hauen pean:

1. Probintziako Diputazioaren esku edota holakorik ezean aduanetako produktuena, bere zorraren korrituen ordainketarako behar den zenbatekoa kontribuzio zuzenetik bereiztea eta bere taulen gainean kontsignaturik zituzten gainerako atentzioak eta urteko ehuneko hainbat aipatu zorraren kapital amortizatorako, zenbateko hori aipatu taulek 1829tik 1833ra, biak barne, bitarteko urte amankomunetan sartu zutena izango delarik.

2. Aduanak, Baskongadetako probintzietako kostalde eta mugetara lekualdatzeari buruz ebazten denaren kalterik gabe, Donostia eta Pasaiako portuek gaiturik jarraituko dute, gaurregun behin-behineko dauden bezala, produktu nazionalen exportatorako eta atzerrikoen inportatorako, indarrean dirauten arantzelei atxikiz.

3. Kontraerregistroak mugatik laupabost leguatarako kokatu behar direla, barne merkataritza erabat libre utziz, haiek igaro ondoren beste inon inolako gida edo erregistrorik egin beharrik gabe, hau Aduanetako sistema orokorrarekin bat etorritz gero.

17. Art. Tabako salmenta Nafarroan Gobernuaren eskutik administratuko da, Erreinuko gainerako probintzietan bezala, haren Diputazioari ordainduz, edota holakorik ezean honek kontribuzio zuzenetik

contribución directa, la cantidad de 87.537 reales anuales con que está gravada, para darle el destino correspondiente.

*Art. 18.* Siendo insostenible en Navarra, después de trasladadas las aduanas a sus fronteras, el sistema de libertad en que ha estado la sal, se establecerá en dicha provincia el estanco de este género por cuenta del Gobierno, el cual se hará cargo de las salinas de Navarra, previa la competente indemnización a los dueños particulares a quienes actualmente pertenecen y con los cuales tratará.

*Art. 19.* Precedida la regulación de los consumos de cada pueblo, la Hacienda pública suministrará a los Ayuntamientos la sal que anualmente necesitaren al precio de coste y costas, que pagarán aquellas Corporaciones en los plazos y forma que determine el Gobierno.

*Art. 20.* Si los consumidores necesitaren más cantidad que la arriba asignada, la recibirán a precio de estanco de los toldos que se establecerán en los propios pueblos para su mayor comodidad.

*Art. 21.* En cuanto a la exportación de sal al extranjero, Navarra disfrutará de la misma facultad que para este tráfico lícito gozan las demás provincias, con sujeción a las formalidades establecidas.

*Art. 22.* Continuará como hasta aquí la exención de usar de papel sellado de que Navarra está en posesión.

*Art. 23.* El estanco de pólvora y azufre continuará en Navarra en la misma forma en que se halla establecido.

*Art. 24.* Las rentas provinciales y derechos de puertas no se extenderán a Navarra mientras no llegue el caso de plantearse los nuevos aranceles y en ellos se establezca que el derecho de consumo sobre géneros extranjeros se cobre en las aduanas.

*Art. 25.* Navarra pagará, además de los impuestos antes expresados, por única contribución directa, la cantidad de 1.800.000 reales anuales. Se abonarán a su Diputación provincial 300.000 reales de los expresados 1.800.000 por gastos de recaudación y quiebra que quedan a su cargo.

*Art. 26.* La dotación del culto y clero en Navarra se arreglará a la Ley general y a las instrucciones que el Gobierno expida para su ejecución.

Por tanto, mandamos a todos los Tribunales, Justicias, Jefes, Gobernadores y demás autoridades, así civiles como militares y eclesiásticas, de cualquier clase y dignidad, que guarden y hagan guardar, cumplir y ejecutar la presente ley en todas sus partes. Tendréislo entendido para su cumplimiento y dispondréis se imprima, publique y circule

El Duque de la Victoria, Regente del Reino

Madrid, 16 de Agosto de 1841.

A. D. Facundo Infante.

atxikiz, kargaturik dagoen urteko 87.537 errealeko zenbatekoa, dagokion norakoa emateko.

18. Art. Nafarroan, aduanak bere mugetara lekualdatu ondoren, gatzak izan duen askatasun-sistema eutsiezina delarik, aipatu probintzian gai horretako estanku bat ezarriko da Gobernuaren eskutik, zeinak Nafarroako gatzagak bere gain hartuko bait ditu, gaurregun haien jabetza duten eta tratuan arituko den jabe partikularrei dagokien indemnizazioa alde aurretik ordainduz.

19. Art. Herri bakoitzaren kontsumoen arauketa aurrez delarik, Hazienda publikoak Udalei urtero beharko luketen gatza banatuko die kostu eta kosta prezioan, zeina Korporazio haiek Gobernuak erabakitzen duen epe eta eran ordainduko bait dute.

20. Art. Kontsumitzaileek goian adierazitako gatza baino gehiago beharko balute, haiei erosoago gertatzearen, herrietan bertan ezarriko diren toldoetatik jasoko dute estanku-prezioan.

21. Art. Gatza atzerrira esportatzeari buruz, legezko trafiko honetarako gainerako probintziek duten ahalmen berbera izango du Nafarroak, ezarritako araei atxikiz.

22. Art. Orain arte bezala iraungo du Nafarroaren jabegoa den paper zigilatua erabiltzeko salbuespenak..

23. Art. Polbora eta sufre estankuak ezarririk dagoen era berean iraungo du Nafarroan.

24. Art. Probintziako errentak eta ateetako eskubideak ez dira Nafarroara hedatuko arantzel berriak planteatzeko kasua iritsi eta horietan atzerriko gaien gaineko kontsumo eskubidea aduanetan kobratzea ezartzen ez den bitartean.

25. Art. Nafarroak, lehen adierazitako zergez gain, kontribuzio zuzen bakar batez, urtero 1.800.000 errealeko kopurua ordainduko du. Bere probintziako Diputazioari aipatutako 1.800.000 errealetatik 300.000 abonatuako zaizkio bere kargura geratzen diren bilketa eta porroteko gastuengatik.

26. Art. Kultu eta kleroaren zuzkidura Lege orokorrari eta hura betearazteko Gobernuak ematen dituen aginduei egokituko zaie.

Beraz, edozein mota eta duintasuneko Auzitegi, Justizia, Buruzagi, Gobernadore eta gainerako Agintari guztiei, zibil nahiz militar eta elizakoei Lege hau bere alderdi guztietan gorde eta gordeerazi, bete eta beteerazi dezaten agintzen diegu. Ulertutaz edukiko duzue horrela bete dadin eta imprimatu, argitaratu eta zirkulazioan jar dadin xedatuko duzue Victoriako Dukeak, Erreinuako Erregenteak

Madrid, 1841eko Abuztuaren 16an

A. Facundo Infante Jnak.